

ARIMEN AGERKUNDEAK BERMEON-II

Elantxobeko J. F.k 1920an bidalitako informazioa

1883. urtean gertatu zen itsasgizon bi belaontzi baten joan zirela bidaiari, eta denborale haundi bat harrapatu zutela, eta lagun biak egin zutela promesa bat Doniene Gaztelugatxi.

Heldu zirenean herrira, ahaztu egin ziren euren promesaz. Gero honetatik bat hil zen. Gero bestea bere etxera joan zenean gau baten hil zena agertu zitzaion ondokoa esanez:

- Ez duzu gogoratzen itsasoan halako denboralean egin genuen promesa?

Eta erantzun zion:

- Bai.

Hau erantzun zuenak ez zuen pentsatzen hura izango zela bere lagun hila, beste bat baino. Gero, jakin zuen, berak bidean esanda, bera zela itsasoan berarekin promesa egin zuena. Heldu ziren Donienera, eta bete zuten euren promesa. Hildakoak lagundu zion berriro bere etxera artean, eta eskerrak emanda agur egin zion esanez:

- Ni orain ondo nago, baina esan behar dizut agertuko zaizula neure legez beste bat, baina horri ez lagundu, ez da parte onekoa eta.

Baina berriro egunak joan eta egunak etorri bitartean agertu zitzaion bere lagunek esandako parte txarrekoa, baina gizonak ez zuen gogoratu beren lagun onak esan zion kontua, eta lagundu zion. Gero, Donienera hirugarren oinatzera heldu zenean berarekin zihoanak beste aurpegi bat erakusten zuela ikusi zuen. Orduan, gogoratu zuen bere lagunaren berba, eta honetara ezagutu ez zela parte onekoa. Beldurturik ez zekien nora joan. Honetariko baten ikusi zuen behi bat su dariola zetorrela, eta jaurti zen behi horrengana bere eskuekin adar bietatik oratuta zuela. Behia hasi zen saltoka, eta ihes egin zuen menditik Bermeorantz, oinaztargia legez, gure gizona bere adarretan zeramala. Heldu zen herri barrura, eta herri guztia ikaratu zen. Bidean ez zuen beste erremediorik konjuruak botatzea baino. Horrekin batera ihes egin zuen behiak, eta gizona joan zen bere etxera gaixoturik, eta handik denbora laburrera hil zen hango beldurrarekin.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973